

Oraingoan **justiziaren** balioa landuko dugu, zeina Arizmendi Arrietaren idatzietan honelako balioen ondoan agertu ohi den: elkartasuna, maitasuna, duintasuna, heziketa, etab. Termino edo kontzeptu horien bitartez garatzen du bere pentsaera kooperatiboa. Justiziaren balioa da balioen artean maiztasunagatik nabarmentzen direnetako bat (ikus dokumentua: "[ALEko bazkideei zuzendutako komunikatua, 2. zk. G-B 01 Maiztasunak](#)").

## **Ezin da justiziaz jardun gizakien duintasuna zer den ez dakitenen artean.** p3

*Apaiz honen ustez berak egiten eta predikatzen duena ez dago giza errealitateen alor honetan dagokionetik kanpo; izan ere, justizia eta maitasun izaera eta jarrera berrien premia baino ez da, eta uki daitezkeen errealitateen forma har dezakete, gizakiaren neurrira, irabazi, onura eta interes egoista itxia baino gehiago den zerbaiten erantzun gisa.* p2

*Toki batean bere duintasunaz ohartzen diren gizakiak, askatasuna maite dutenak eta justizia sozialaren eskakizunei erantzun eta denontzat berdina den elkartasun erregimen bat onartzeko gai direnak baldin badaude, hortxe egingo ditu erroak kooperatibismoak eta hortxe itxaron daiteke kooperatibak fruitu onak ematea.* p25

*Bizitzea eta lan egitea merezi du baina ez bakarrik irabazteko edo norbere eskuetan aukerak pilatzeko. Elkarbizitza, bakea, justizia, ulermena, samurtasuna, senidetasuna, bilatu eta lortu beharreko gauzak dira, eta horiek borroka mundu batean benetan lortzeko beharrezkoa da lan egiten duten eta borroka egiten duten pertsonak bide berean jartzeko beste modu bat asmatzea.* p32

*Oinarrizko justiziaren lehen forma da batzuek besteekin erabili behar duguna elkarri izaki librea garela onartuta.* p77